

MATEMATIKA I eta II

Batxilergoan Matematika lau eremutan banatzen dira : Aljebra, Trigonometria, Geometria eta Analisia. Ikasgai honen helburua da unibertsitario izateko beharrezko ezagutza matematikoa eskuratzea, hau da, ikasleak oinarrizko ezagupenak ikastea zientzia- eta teknologia- gai espezifikoetarako buruzko ikasketak egin ahal izateko. Hau guztia betetzeko honako gai hauek lantzen dira:

- Ekuazioak : motak eta ebazpena.
- Ekuazio-sistemak.
- Matrizeak eta determinanteak.
- Buruketen ebazpena.
- Trigonometria: definizioak, erlazioak eta ekuazioak.
- Espazioko geometria: puntuak eta bektoreak, zuzenen ekuazioak eta posizio erlatiboak, planoen ekuazioak eta posizio erlatiboak, distantziak.
- Funtzioak eta deribatuak.
- Integralak eta azalerak.